

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Asteartean hasiko da ingurumen biodibertsitateari buruzko udako ikastaroa

Nafarroako Unibertsitateak antolatuko du, eta Iruñeko Kondestablearen jauregian egingo da

Viernes, 12 de agosto de 2011

Datorren asteartean, abuztuaren 16an, hasiko da Nafarroako Unibertsitateak antolatutako "[Biodibertsitatea: animaliek gizakiarentzat duten garrantzia](#)" izenburua duen udako ikastaroa. Ikastaro horren helburua da animalien eta gizakiaren arteko harremana aztertzea eta ingurunea ezagutzera ematea faunaren bidez.

Monografikoa Biologian eta Ingurumenean doktorea den Enrique Baquerok emango du, eta abuztuaren 16tik 18ra bitartean egingo da Iruñeko Kondestablearen Jauregian, [Nafarroako Unibertsitateen udako ikastaroen hamaikagarren edizioaren](#) esparruan. Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak laguntza eman dute ikastaro horietarako.

Ikastaroan hiru orduko hiru saio eskainiko dira. Lehena, "Biodibertsitatea, lurra eta itsasoa" izenekoa, hilaren 16an izango da, 10:00etatik aurrera, itsasoko eta lurreko animalia bereizgarrienen ingurukoa. Arreta berezia eskainiko zaio dibertsitatearen, biomasaren edo gizakiarekiko harremanaren arabera duten garrantziari.

Bestalde, bigarren jardunaldian, "Animaliak, gaixotasunak eta izurriak" izenekoan, ondorengoak jorratuko dira: gizakiarengan parasitosiak sortzen dituzten animaliak, animalia eta gizakiaren arteko harreman berriak eta nekazaritzan izurriak biologikoki kontrolatzeko erabiltzen diren animaliak.

Azkenik, abuztuaren 18an, "Biodibertsitatearen onurak" izeneko saioa izango da, eta, besteak beste, honako hauek bezalako alderdiak landuko dira: arrantza eta akuikultura, abeltzaintza, zinegetika eta falkoneria, kirol-arrantza, ekoturismoa, parke tematikoak, merkataritza eta hiriko fauna.